

## **Bilboko Portuko sarbideak kontrolatzeko sistema berria**

Uztailaren 1ean jarriko da martxan Bilboko portuko sarbideak kontrolatzeko sistema berria.

Sistema horren helburua da portuan sartzen eta irteten diren ibilgailuen eta pertsonen erregistroa eta kontrola egitea, portuko eremuko segurtasun-maila areagotzea, datu-hartzea automatizatzea eta Portuko Agintaritzari eremuko logistika-kudeaketa eta portuko eragiketak optimizatzeke sistema bat eskura jartzea.

Gainera, indarrean dagoen legeria betetzeko, ontziak eta portuetako instalazioak babesteko kodeari jarraikiz (ISPS, ingelesez), zenbait neurri hartu behar dituzte Portuko Agintaritzek, instalazio horien segurtasuna bermatzeko. Hain zuzen, neurri horietako bat da sarbidea kontrolatzea.

Hauek dira, funtsean, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak sarbide-kontrolaren inguruan ezarritako irizpideak:

- Ibilgailu astunak: matrikula kontrola eta **aurreabisua**.
- Ibilgailu arinak: akreditazio-txartelen kontrola edo kontrolean identifikatzea.
- Ordena publikoko indarren ibilgailu ofizialak: sarbide libre.
- Portuko Agintaritzaren eta Itsas Administrazioaren ibilgailuak, matrikula kontrolagatik.
- Pertsonak: kontrolean akreditatzea edo identifikatzea.

Uztailaren 1a baino lehen akreditazioak lortzea (oraindik ez izanez gero) eta beharrezko urratsak egitea gomendatzen da, hau da:

1.- Ibilgailu arinak eta pertsonak direnean, 944871492 telefono-zenbakira dei daiteke, edo posta elektronikoko bidez kontsulta egin ([jmartinez@bilbaoport.es](mailto:jmartinez@bilbaoport.es)), informazioa eta akreditazioa eskuratzeko.

2.- Ibilgailu astunak direnean, sarrera-aurreabisua eman behar da Bilboko portura sartu aurretik. Aurreabisua bidaltzeko, sareko aplikazio bat jarri dugu e-puertobilbao plataforman (<http://www.epuertobilbao.com>), datuak sartzeko; merkantzia orokorra eta ontziratu gabea denean, matrikula, data, merkantzia eta helburuko terminala, eta, edukiontziko merkantzia denean, informazio zehatzagoa.

E-puertobilbao plataformara sartu eta aurreabisuak egiteko, ziurtagiri digitala eduki behar da. Hori eskuratzeko, portuko Erabiltzaileentzako Arreta Zerbitzura (EAZ) deitu (944871260), edo posta elektronikoa erabil daiteke ([cau@bilbaoport.es](mailto:cau@bilbaoport.es)).